

128.Alea 2023ko EKAINA

Hitzarmena sinatu eta erregistratu ondoren, gure ustez garrantzitsuenaren balorazioa egiteko garaia da, hala ere ohartu gara gauza batzuk ahaztuko zaizkigula, negoziazioak iraun duen urte eta erdi honetan gauza asko eta desatseginak gertatu baitira.

Beste behin ere esan dugu, Tubos enpresan sinatu diren azkenetarikoen artean, **akordiorik onena dela**, batzuk gehiengo batzuekin eta beste batzuk beste gehiengo batzuekin. Eta hau esaten dugu, uste dugulako 2012.urtean behin-behineko langileei egin zitzaizen barrabaskeria konpondu dugulako eta lortu diren gainerako gauzak langile guztientzat izan direlako, lan-sistemak bereizi gabe.

Hasieratik pentsatu dugu beste negoziazio-jarrera batekin akordio hobea lortuko genukeela, baina egoera oso bestelakoa izan da LABen uste genuenarekin alderatuta. Langile guztientzat argitaratu ditugun idazki guztietan, hartzen genituen erabaki guztiak azaldu ditugu (batzuek ezin dute berdina esan), eta gure autokritikak azaldu ditugu (batzuek berriro ere ezin dute esan), ez dugulako ezer izan ezkutatzeke. Hasiera hasieratik aurrez aurre hartu dugu negoziazioa, LABeko batzarretan hartzen ziren erabakiei eutsiz, eta, negoziazioak hartzen zituen bideak kontutan hartuta, beharren arabera birkokatuz.

- Galderen asanblada famatua, gure hitzarmenak dioen bezala egiteko proposatu genuen (hitzarmeneko gauzentzako eragindako pertsonen %50 + 1) langile guztiei parte hartzeko aukera emanez baina sustatzaileek atzera

bota zuten. Orduan demostratu genuen, zelan batzuek nahiz eta batzarretan gehiengo ez izan, langile asanblada baten lortu nahi izatea. Blogen baten irakurri behar izan genuen, asanblada horretan emandako galdera-erantzunak kontutan hartu behar zirela nahiz eta %24,36 eta %8,04 arteko babesaren inguruan mutik ez entzutera heldu gara. Baita ere irakurtzen genuen oso larria zela batzorde batek kasu ez egitea langile asanblada bati, baina langilegoaren %85,5 hitz egin duenean berriro ere, isiltasuna. Portzierto, 35 egun pasatu eta gero, oraindik erreferendumaren gogoeta itxaroten gabiltza.

- Hitzarmena 24 botoz berretsi ezin izan zen lehen erreferendumaren ondoren, LABen abstenitu egin ginen EZETZAREN blokeak zer egin behar zuen erabakitzen zuenaren aurka ez jartzeko, eta proposamena aurrera eramateko gai ez ziren izan, aurkeztu bezain pronto kentzen saiatu ziren, gurditik bota behar zutela ikusita. Batzuek negoziatzeko asmorik ez zutela frogatu ondoren, LABek negoziazioari ekin zion berriro ere, negoziazio bat eraman behar den moduan: **NEGOZIATUZ, PROPOSATUZ, ADOSTUZ eta SINATUZ, langileen lan-baldintzak defendatzeko une bakoitzean erabili behar den edozein borrokamota ahaztu gabe.**

Uste dugu, besteak beste, aipatu berri ditugun bi une horiek direla negoziazioa markatu dutenak, edo hobeto esanda, batzuen helburuak agerian utzi dituztenak negoziazio honetan. Hasieratik, sindikatu nagusiak berdin jokatu du, errebindikazioak oso altu jarri ditu egoera blokeatzeko helburuarekin eta ondoren bere erresistentzia-kutxa preziatua erabili ahal izateko (ELAk lantoki askotan duen jokabidera jotzen dugu, **ELA S.A.ko** langileei ematen diena baino askoz gehiago eskatuz) eta afiliazio-zerrenda handituz joateko. Horri “sindikalismo gorrón” ere dei dakioko, besteak baino gehiago eskatu, ezinezkoa dela jakin arren, gauzak lortzen saiatzen denari kritikatzeko, eta hori guztia higadurarik gabe. Eta Tubos enpresan bere marka zuriaren laguntza paregabea izan du, gainera kostu sindikalik gabe. Sindikalismoa egiteko modu hori beste edozein eredu sindikal bezain

legitimoa da, baina LABek uste du ez dela oso osasungarria langileentzat, eta lanean jarraituko dugu hura aldatzeko.

Kritika asko entzun behar izan ditugu Hitzarmenaz Kanpokoek (HK) beren lan baldintza asko hitzarmenari lotutako aldeko edo kontratako botoa emateko kontuarekin. Ikusi dugu baten batek erreferenduma inpugnatzeko mehatxua egiten zuela, mehatxu simple baten geratuz. Argi geratzen zaigu ez dutela inpugnatu, ezin zelako inpugnatu. Baina hala ere, erabaki honetan lagundu izan du, erroldatik 90 HKak kendu ezkerre eta emaitzatik 90 baiezko bozka kendu ezkerre (guztiek baiezko bozka eman dutelakoan) erreferendumaren emaitzatik berdina izango zelako. Pertsona horiek guztiek langileen ordezkariak aukeratzeko eskubidea besterik ez dutela ematen du (berehala ikusiko dugu erreferendumean bozkatzea nahi ez zutenek, inolako lotsarik gabe eskatuko dietela bozka), eta enpresa-batzordea 21 kidez osatuta (langile horiek kendu ezkerre, batzordea 17 kidez osatuta egongo zen) laguntzen dutela. LABen uste dugu Tubosen neurritz kanpo dagoela mota horretako kontratuen kopurua. Gainerako enpresetan, HKak Zuzendaritza Batzordeetako kideak eta ataletako eta sailtako buruak izaten dira. Eta eztabaida hori da aurrera eraman behar genuena TRG, eta TRGzri murriztu kontratu horiek egiteko aukerak. Enpresa Batzordea behar den mailan egotea espero dugu, TRGzk kolektibo horri esparru arautzailea aldatzeko asmotan dagoelako.

Eta negoziatioari amaiera emateko, azken bileran aho bete hortz geratu gara. ESK ELA ez dira gai izan azken akta sinatzeko. Akta horretan jasotzen den gauza bakarra da hitzarmena plantillako gehienek berretsi dutela eta Enpresa Batzordearen gehiengoak sinatu duela. Hemen ere itzalak ikusteko gai badira, jai dugu. Ez dute akta sinatzen baina aldi berean, delegatu guztientzako, sindikalak zein batzordekoentzat egun sindikala zuzendaritzaren esku joatea eskatzen dute (negoziatio-bileretan negoziatio-mahaiko kideek bakarrik dituzte orduak zuzendaritzaren kontura). Bileran ez dute zergatia azaldu,

interpelazio honen ondoren egitea espero dugu, besteok ikusteko gaitasunik ez dugun zerbait ikusi baldin badute, esatea lukete. Era berean, esan behar diegu LABek ez duela pentsatu aktan estanpatu behar zituzten sinadura horiek erabiltzea dokumentu faltsu batean erabiltzeko, lasai egon daitezen, eta akta sinatzeak ez duela esan nahi hitzarmena sinatzen dutenik. Hala ere, ez da lehenengo aldia zerbait sinatu edo adostu ondoren ELAko liberatua atera zaigula inpugnatuko duela esanez...

Bukatzeko, esan behar dugu LABek negoziazioa amaitzea espero duela, TRGko ELAko atal sindikalari salaketa sartzeko, gure sinadurak ez dagoen dokumentu batean erabiltzeagatik. Horren larria da ELA bere garaian publikoki salatu genituen gertakari batzuen errua egozten saiatu dela, eta gertaera horien berri ematen jarraitu dugula 1. multzoko akordioa sinatu arte. Larritasuna ez da hor geratzen, dimititzeko eta publikoki zuzentzeko eskatu ondoren, haxe erantzun ziguten: **“ez dugu zuzenduko, ez dugu dimitituko eta, ahal den neurrian, horrelako dokumentuak egiten jarraituko dugu”**. Baten batek hainbeste denbora darama ordezkartzen, Enpresa Batzordea bere etxe propioa dela uste duela, eta LABetik ez diogu utziko. Esan behar dugu hitzarmenaren negoziazioa amaitu arte itxaron dugula, horrek negoziazioa bera ez baldintzatzeko. Baina ikusitakoa ikusita, salaketa sarenezakeen zuzendu nahi ez izanaren erantzuna jaso ondoren, ELAk ez baitu inoiz negoziatzeko asmorik izan.

Espero dugu azaroan zerbait aldatzeko aukera izatea!!!